

ISSN: 2530-6561
2020ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak

Artizar Erauskin

Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak

Artizar Erauskin

Ekonomia Aplikatua I Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Herri Administrazioen Erosketa eta Kontratazio Arduratsua (EKPA) edo Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI)	5
3. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra praktikan	8
4. Erosketa Publikoaren araudi eta erakunde-esparruaren egokitzapena Europar Batasunean	12
4.1. EBn EKPBa sustatzeko arau-esparrua	
4.2. EKPBa sustatu duten Europar Batasuneko erakundeen esparrua eta ekimenak	
5. EBko herrialdeen arteko desberdintasunak, Erosketa Berdearen aplikazioari dagokionez	12
6. Ondorioak	12
7. Bibliografia	12
8. Glosarioa	12

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak](#)

Egilea: Artizar Erauskin

hegoak zabalduz - 19. zk. 2020ko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Erosketa eta Kontratazio Publikoa (EKP) deritza Herri Administrazioa osatzen duten erakundeek ondasunak eta zerbitzuak erosteko edo kontratatzekeko prozesuari. EKPa bulego-materiala erostera mugatu daiteke, edo politika nazionalaren helburu batzuk lortzeko tresna gisa erabili daiteke. Tradizionalki, Herri Administrazioen baitako erakundeetako EKP arduradunek, ondasun edo zerbitzu baten edo beste baten aldeko erabakia hartzerakoan, preziorik baxuenaren irizpideari jarraitu izan diote. Azken urteetan, ordea, EKPetan, pixkanaka bai ingurumen irizpideak zein irizpide sozial eta etikoak kontuan izaten hasi dira. Iraunkortasuna terminoa herrialde askoren etorkizuneko garapen-politiken planteamenduetan aipatzen hasi zirenetik, Erosketa eta Kontratazio Publiko Arduratsuen (EKPA) praktika areagotu da, besteak beste, EKP prozesuetan jaso diren eskaintza ezberdinak hautatzerakoan kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio hobereana aintzat hartuz eta ingurumen- eta gizarte-eskakizunak erabiliz, esleipen-irizpide gisa.

Hitz gakoak: Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea, Iraunkortasuna, Gizarte Ekonomia

Abstract: Public Procurement (PP) is the process of purchasing or contracting goods and services by the entities that make up the Public Administration and can be limited to the acquisition of office supplies or used as a tool to achieve certain national policy objectives. Traditionally, those responsible for the PP in Public Administration institutions have made the decision in favour of one or another good or service following the criterion of the lowest price. However, in recent years the Public Procurements have progressively incorporated environmental, social and ethical criteria. Since the term sustainability began to be mentioned in the approaches of future development policies in many countries, Sustainable Public Procurement (SPP) has been intensified, among other things, in the selection of the different offers received in the SPP processes, taking into account the best value for money and using environmental and social requirements as award criteria.

Keywords: Sustainable Public Procurement, Green Public Procurement, Sustainability, Social Economy

1. Sarrera

Erosketa eta Kontratazio Publikoa (EKP) deritzo Herri Administrazioa osatzen duten erakundeek ondasunak eta zerbitzuak erosteko edo kontratatzeko prozesuari. Herri Administrazioaren baitan dauden erakundeek ondasunak eta zerbitzuak erosten dituzte beren egunerokotasunean jarduteko zein politika publikoak gauzatzeko. Ondasun eta zerbitzu horiek, beraz, papera eta arkatzak erostetik hasi eta eskola publikoak, garbiketa-zerbitzuak eta errepede publikoetako obrak martxan jartzeraino doaz. Alegia, erosketa eta kontratazio publikoa bulego-materiala erostera mugatu daiteke, edo politika nazionalaren helburu batzuk lortzeko tresna gisa erabili daiteke, besteak beste, jarduera ekonomikoa sustatzeko. Horrenbestez, sektore publikoak kontsumitzaile gisa betetzen duen zeregina estrategikoa izan daiteke (Erauskin-Tolosa et al., 2017).

Erosketa eta Kontratazio Publikoari loturiko merkatuak ekonomiaren, izan nazioarte mailakoa zein tokikoa, zati esanguratsua osatzen du. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeko (ELGE) kide diren herrialdeetan, gobernuaren kontsumoa BPGaren % 8-% 25 bitartekoa da; batez beste, % 15 (OECD, 2015). Europar Batasunean (EB), Herri Administrazioaren baitan dauden erakundeek BPGaren % 19 bideratzen dute ondasun eta zerbitzuen erosketa edota kontrataziora (European Commission, 2016).

Tradizionalki, Herri Administrazioen baitako erakundeetako EKP arduradunek arlo ekonomikoari erreparatu izan diote. Alegia, EKParri errentagarria izatea eskatu izan zaio. Ondorioz, Herri Administrazioetako erosketa eta kontratazio arduradunari eskatu izan zaio, ondasun edo zerbitzu baten edo beste baten aldeko erabakia hartzerakoan, preziorik baxuenaren irizpideari jarraitzeko. Azken urteetan, ordea, EKPetan pixkanaka ingurumen-irizpideak zein irizpide sozial eta etikoak kontuan izaten hasi dira.

Mundu mailan, arau-atariko asko berregin dira iraunkortasuna terminoa herrialde askoren etorkizuneko garapen-politiken planteamenduetan aipatzen hasi zirenetik. Espainian, kontratazio publikoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak (SPKL) arautzen du. Lege horrek Espainiako Zuzenbidera ekarri zituen Europako Zuzentarauak (2014/23/EB eta 2014/24/EB, otsailaren 26koak). Arau horretan, Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI) edo Arduratsua bultzatzen da, besteak beste, eskaintzak hautatzerako esleipen-irizpide gisa kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio hobereana aintzat hartuz eta ingurumen- eta gizarte-eskakizunak erabiliz. Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hau aipatu behar da: Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2008ko apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak zein bestelako politika publikoak sartzeari buruzkoa.

Lan honen hurrengo atalean, alde batetik, EKPIa nola definitzen den jasoko da, eta, bestetik, adieraziko da zein urratsetan eta nola barneratu daitezkeen iraunkortasun-eskakizunak, Erosketa eta Kontratazio Publiko bati dagokion prozesuan zehar. Ondoren, EKPIaren erabilera bermatzeko dagokion esparru juridiko eta politikoaren bilakaera azalduko da. Eta, amaitzeko, EKPIaren baitan dagoen Erosketa Publiko Berdearen kasuan Europar Batasuneko (EB) herrialdeek egindakozko urratsen inguruko ikuspegi orokor bat jasoko da.

2. Herri Administrazioen Erosketa eta Kontratazio Arduratsua (EKPA) edo Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI¹)

Herri Administrazioen Erosketa eta Kontratazio Arduratsua edo Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI) ondasun edo zerbitzu baten arlo ekonomikoa, arlo soziala zein ingurumen arloa barneratzen dituen Erosketa eta Kontratazio Publikoaren praktika bat da. EKPIa hainbat modutara definitu da, eta gehienek, denek ez bada, iraunkortasunaren hiru arlo nagusiak kontuan izango dituen EKP gisa definitzen dute (ikus 1. taula).

1 Testuan zehar Herri Administrazioen erosketa eta kontratazio arduratsua eta Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra terminoak berdindu erabiliko dira.

1. taula: Erosketa eta Kontratazio Arduratsuaren hainbat definizio.

Erakundea (urtea)	Definizioa
UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO (2011)	<i>Erosketa Publiko Arduratsuak ingurumenaren babesaren, aurrerapen sozialaren eta garapen ekonomikoaren alde egiten duten eskakizunak eta irizpideak integratzen ditu, eta ingurumenaren babesaren, aurrerapen sozialaren eta garapen ekonomikoaren alde egiten du, besteak beste, baliabideen eraginkortasuna bilatuz, produktuen eta zerbitzuen kalitatea hobetuz eta kostuak optimizatuz.</i>
CEE (2008a)	<i>Erosketa Publiko Arduratsua prozesu bat da, zeinaren bidez administrazio publikoek ondasun, zerbitzu eta obrak erosten/kontratatzten dituzten; horiek beste modu batera lortuko lituzketen ondasun, zerbitzu eta obrek beteko luketen funtzio bera beteko dute, baina bizi-ziklo osoan ingurumen-inpaktu murriztagoa izango dute.</i>
DEFRA (2006)	<i>[...] erakundeek dituzten ondasun-, zerbitzu- eta obra-beharrak asetzen dituen prozesu bat, bizi-ziklo osoaren kostua kontuan izango duena, erakundearentzat ez ezik, gizartearentzat eta ekonomiarentzat ere onurak sortzeko, ingurumenari egindako kaltea minimizatuz.</i>
ICLEI (2007)	<i>Kontratazio iraunkorrak esan nahi du erakundeek erosten dituzten produktuak eta zerbitzuak ahalik eta iraunkorrenak izango direla ziurtatuko dutela, ahalik eta ingurumen-eragin txikiena eta gizarte-eragin positibo handiena izango dutenak. [...] Ingurumen-eskakizunak eta eskakizun sozialak kontratazio-jarduera guztietan sistematikoki integratzea, ondasunak, zerbitzuak edo obrak erosterakoan, benetako beharrak zehaztetik hasi eta zehaztaperen teknikoak eta ebaluazio-prozedura egokiak ezartzeraino. Horrez gain, jarduera eta emaitzak monitorizatzea eskatzen du.</i>

Iturria: Egileak egina.

Definizio horien arabera, EKPIak ondasun edo zerbitzu bat erosi eta kontratatzerakoan kontuan izango ditu: i) ikuspegi ekonomikoa, hau da, ondasun eta zerbitzuek bizi-zikloan zehar duten kostu osoa; eroste kostua, mantenua, erabilera eta bizi amaierako kostuak (baita deuseztatzea ere); ii) ikuspegi soziala, alegia, justizia soziala eta ekitatea; segurtasuna; giza eskubideak eta lan baldintzak eta iii) ingurumen ikuspegia, hots, ondasun eta zerbitzuak eragingo dituen isurketak, lur- eta ur-kontsumoa, bioaniztasunean izango duen eragina, baliabide naturalen erabilera, hots, ingurumen-aldagaiak.

ICLEIren definizioak aurrekoari gehitzen dio iraunkortasun-eskakizunak erosketa- eta kontratazio-prozeduraren fase ezberdinetan barneratu daitezkeela, eta horrek aldaketa bat ekarriko du Erosketa eta Kontratazio Publikoaz arduratzen diren askorentzat, hau da: hornitzaileak balio-katean oinarriturik aztertu eta lan arauak betetzen direla bermatzeaz gain, ingurumen-irizpideak edo irizpide sozialak barneratu beharko dira lehiaketarako argitaratuko diren dokumentuetako zehaztaperen teknikoetan (ibilgailuen isurketa baxuagoa, elikagai organikoak edo ziurtagiridun egurra eskatzen dituztenak), eta prozeduraren amaieran ezarri diren iraunkortasun-eskakizunak bete diren edo ez ikuskatu beharko da.

Pererak (2010), aurreko bi definizioen ildoari jarraituz, xehetasun batzuk gehitzen ditu, eta azpimarratzen du EKPIa, finean, zergadunen diruarekin negozioak eginez epe luzean gizartearen onurak lortzeko tresna bat dela.


“Erosketa publiko iraunkorra erosketa publikoen prozesu eta erabakietan arrisku ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak txertatzeko lege, politika eta praktikei dagokio. Bizi-ziklo osoa kontuan izanik “prezio-kalitate erlazio” hoberena lortu nahi da, honako hauen ingurumen-ondorioak, ondorio sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta: diseinua; material ez-berriztagarrien erabilera; fabrikazio- eta ekoizpen-metodoak; banaketa eta merkaturatzea; erabiltzailearen eragiketak eta/edo bizitza; ezabatzeak, berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukerak; eta hornitzaileek balio-katean ondorio horiei aurre egiteko duten gaitasuna. Bestela

esanda, erosketa publiko iraunkorra zergadunen diruarekin epe luzean gizaritari onurak eskainiko dizkion negozioak egitea da.

EKPIak eskatzen du gobernuek edo erakunde publikoek erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuan ingurumen-eraginak edota eragin sozialak modu orokorrean kontuan izatea (Preuss L., 2009; Walker & Brammer, 2009).

Erosketa eta Kontratazio Publiko Arduratsuari/Iraunkorrari loturiko ikerketa akademikoaren historia ez da hain luzea, eta literatura akademikoan aurki daitezkeen lanak bi multzo handitan bereizi daitezke: alde batetik, EKP jardueren bidez modu zuzenean lortzen diren helburuak aztertzen dituztenak daude, izan helburu sozialak zein ingurumenari loturikoak, eta, bestetik, EKP prozesuek eragiten dituzten zeharkako eraginak neurtzen saiatzen direnak.

Lorpen zuzenei loturiko azterketak oso urriak badira ere (Brammer & Walker, 2011), adibidez, PwCen 2009ko ikerketa lanak erakusten duenez (ikusi 1. irudia), administrazio publikoa, Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorraz (EKPI) baliatuz, "business as usual" egoera batean baino eraginkorragoa izan daiteke; izan ere, hainbat ondasun eta zerbitzu "berde" merkeagoak dira beraien erabilpena, mantenua eta deuseztatzea, hau da, bizi-ziklo osoa kontuan izaten bada. Gainera, EKPIa zergadunei jasotzen zaien dirua modu arduratsu batean erabiltzea litzateke.



Iturria: Collection of statistical information on GPP (2009).

Horrez gain, Ipar Irlandan erosketa eta kontratazio publikoan oinarrituriko proiektuaren eragina jasotzen duen "Public Procurement and Social Policy in Northern Ireland: The Unemployment Pilot Project" txostenean, Erridge eta Henningan egileek (2006) azpimarratu zuten EKPI bidez posible dela iraupen luzeko langabezia murriztea.

Bestetik, EKPIak zeharkako eraginak ere izango ditu. Hots, berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketak murriztu ditzake, bai eta energia eta uraren eraginkortasuna hobetu, zaborren sorrera murriztu, berrerabilera eta birziklatzea bultzatu, baliabide berriztagarrien erabilera sustatu edo teknologia garbiagoen garapena eta erabilera bultzatu ere. Esate baterako, Rietbergen eta Blok egileek kuantitatiboki ebaluatu dituzte sektore publikoak bultzatutako ekimenen bidez energiaren erabilerari eta erakunde publikoen hornidura-kateetako CO² emisioen murrizketari dagokienez lortu diren ingurumen-onurak: Herbehereetan, CO²aren guztizko emisioak nabarmen jaitsi dira EKPIaren tresna berri bat sartu zenetik, CO²aren errendimendu-eskailera (Rietbergen eta Blok, 2013).

Valoniako Gobernuak obretarako kontratazio publikoko prozeduretan klausula sozialak erabiltzeko betebeharra ezarri zuen 2013. urtean. Horrek, 2014tik 2018ra bitartean, 442 kontratutan (guztira 400 milioi euro baino gehiago) klausula sozialak barneratzea eragin zuen, eta, ondorioz, 70 kontratu gizarte-enpresetako azpikontratistekin burutu ziren, eta gizarte-enpresetako 30 azpikontratistak 3,5 milioi euro baino gehiago jaso zituzten azpikontratutako zerbitzuetarako. Gizarte-klausulak zituzten lehen kontratuak argitaratu eta bost urtera, emaitzak positiboak izan dira, oro har: erakutsi dute erosketa publikoak tresna egokia direla lanbide-heziketa sustatzeko eta gizarte-ekonomiako enpresen eta gainontzeko enpresen arteko aliantzak eraikitzeko (European Commission, 2020).

Beraz, EKPIa erabaki politikoak praktikan jarri eta betetzeko tresna gisa uler daiteke, hau da, garapen iraunkorraren alde eraginkortasuna eta berrikuntza hobetzeko lagungarria den tresna garrantzitsu gisa. Gobernuak duten merkatu indarrarekin, ekonomia iraunkorrago baterantz aldarazi dezakete ekoizleen jarrera. Adibidez, eragin sozial positiboak ere izan ditzake pobrezia erazketa, genero- eta etnia-ekitatea edo oinarritzko lan-baldintzak bermatzen dituen neurrian. EKPIa sustatu eta erabiltzean, agintari publikoek pizgarri errealak eman diezazkiokete merkatuari, teknologia eta produktu iraunkorragoak garatzeko. Sektore batzuetan, erosle publikoek merkatuaren zati handi bat kontrolatzen dute (adibidez, garraio publikoa eta eraikuntza, osasun-zerbitzuak eta hezkuntza), eta, beraz, haien erabakiek eragin nabarmena dute. Dena dela, kontuan izan behar da EKPIa borondatezko tresna bat dela, beraz, hein batean, agintari publikoek zehaztuko dute zein neurritan aplikatuko den.

3. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra praktikan

EKP prozesuak hainbat fase ditu, eta ingurumen-eskakizunak zein eskakizun sozioekonomikoak erosketa eta kontratazio publikoaren urrats guztietan har daitezke kontuan: i) kontratuaren xedean, ii) zehaztapen teknikoetan, iii) lizitatuzaileak hautatzeko irizpideetan, iv) kontratua esleitzeko irizpideetan eta v) kontratua gauzatzeko klausuletan.

Kontratuaren xedean, herri administrazioak erosi edo kontratatu behar duena zehazten da, hau da, balizko lizitatuzaileei administrazioaren beharra adierazten die, eta eskaintza egin edo ez erabakitzen laguntzen die. Beraz, kontratazio-prozesuan alderdi sozial edo ekologikoa kontuan hartzeko modurik azkarren eta gardenena kontratuaren xedean bertan adieraztea da (ikusi 2. taula).

2. taula: Kontratuaren xedea iraunkortasun-eskakizunarekin edo gabe. Adibide bat	
Irizpide iraunkorrekin	Irizpide iraunkorrik gabe
Energetikoki eraginkorrak diren eta sozialki modu arduratsuan ekoitzi diren gailu multifuntzionalak (inprimagailua, eskanerra) erostea	xx bulegorako inprimagailuak erostea

Iturria: Egileak egina.

Alabaina, kontratuari izenburu iraunkorra jartzea ez da nahikoa. Iraunkortasun-eskakizunak zehazten diren fasea, zehaztapen teknikoaren fasea ere oso garrantzitsua da erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuaren bidez emaitzarik iraunkorrena lortzeko (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011, 45. or.).

Zehaztapen teknikoak bi motatakoak izan daitezke: alde batetik, produktuek, zerbitzuek edota lanek bete beharreko derrigorrezko gutxieneko baldintzak zehazten dituztenak daude. Eskaintzaren batek baldintza horiek betetzen ez baditu, prozesutik kanpo geratuko da. Bestetik, kontratua esleitzeko baldintza baloragarriak zehaztu daitezke. Gutxieneko baldintzetatik haratago doazen ezaugarriak baloratzeko aukera onesten bada, esleipen-fasean baloratuko dira. Orokorrean, zehaztapen teknikoaren helburua da erosi edo kontratatu nahi den ondasunaren/zerbitzuaren ezaugarriak ondo zehaztea. Ezaugarri horiek ondasunaren/zerbitzuaren bizi-ziklo osoaren edozein unetakoak izan daitezke, eta kontratuaren xedearekin lotura izan



behar dute betiere. Edozein kasutan, EKP arduradunak, zehaztaperen teknikoak definitzerakoan, etiketa ekologikoetan edota etiketa sozioekonomikoetan oinarritu daitezke.

3. taula: Iraunkortasun-eskakizuna zehaztaperen teknikoan	
Irizpide iraunkorrik gabe	Irizpide iraunkorrekin
Hozkailu, sukalde eta garbigailuak babes publikoko eraikinetarako erosterakoan, ez da zehazten horien gutxienerako energia eraginkortasuna.	Hozkailu, sukalde eta garbigailuak babes publikoko eraikinetarako erosten direnean, gutxienez A++ klasekoak izatea, europar sailkapen energetikoaren etiketaren arabera.

Iturria: Egileak egina.

Ekoetiketa edo produktuaren ingurumen-ziurtaperen guztien artean, kontratazio publikoan errazen erabiltzen direnak i) arauzko ekoetiketak eta ii) irizpide eta atalase espezifikoak dituzten borondatezko ekoetiketak dira.








Arauzko ekoetiketak Europako erregelamenduen edo estatu-araudien bidez araututa daude, eta derrigorrezkoak dira (ikusi 4. taula).

4. taula: Arauzko ekoetiketen adibideak																	
Mota	Arriskua adierazten duten piktogramak	Efizientzia energetikoaren etiketak	Turismo-ibilgailuen eta furgoneten kontsumo eta CO ² isurketen etiketa														
Azalpena	Produktu kimikoen substantzia arriskutsurik ba ote duten adierazten dute	Produktuen kontsumo energetikoaren maila eta haien efizientzia energetikoa adierazten dute	Ibilgailu mota bakoitzaren batez besteko kontsumoa eta CO ² isurketak														
Ikurra			<p>En todos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y las emisiones de CO₂ en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismos nuevos.</p> <p>Marca/modelo: Tipo de carburante:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2">CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Tipo de conducción</td> <td>l/100 km</td> </tr> <tr> <td>En ciudad</td> <td></td> </tr> <tr> <td>En carretera</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Media ponderada</td> <td></td> </tr> <tr> <th colspan="2">EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO₂ (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)</th> </tr> <tr> <td colspan="2">g/km</td> </tr> </tbody> </table> <p>El consumo de combustible y las emisiones de CO₂ no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO₂ es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.</p>	CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)		Tipo de conducción	l/100 km	En ciudad		En carretera		Media ponderada		EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO ₂ (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)		g/km	
CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)																	
Tipo de conducción	l/100 km																
En ciudad																	
En carretera																	
Media ponderada																	
EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO ₂ (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)																	
g/km																	

Iturria: IHOBE (2020)tik moldatua.

Irizpide eta atalase espezifikoak dituzten borondatezko ekoetiketen artean daude International Standards Organisation (ISO) sailkapena duten I. motako etiketak (ekoetiketak). Ekoetiketak organismo publikoek edo ospea aitortua duten erakunde batek egiaztatutako etiketak dira, eta ISO 14024 arauaren zehaztaperen

araberako irizpide ekologikoak bete direla bermatzen dute. Eskatutako irizpideak produktuaren bizi-ziklo osoari aplikatzen zaizkio: energia eta baliabideen erabilera, isurketa kutsatzaileak, hondakinen suntsiketa eta ekosistemen gaineko eragina. 5. taulan, adibidez, mundu mailan nagusiak diren etiketa ekologikoen zerrenda jasotzen da .





5. taula: I. motako Ekoetiketen adibideak			
Izena	Ikurra	Erakunde egiazatzailea	Deskribapen laburra
European Flower		Europar Batasuna	28 produktu kategorია: margoak, garbiketa produktuak, papera...
Nordic white Swan		Eskandinaviako kontseilua	65 produktu kategorია: eraikuntzarako materialak, garbiketa produktuak, papera...
Blue Angel		Alemaniko Ingurumen Ministerioa	70 produktu kategorია: margoak, papera, telefonoak...
EcoMark Program		Japoniako Ingurumen Ministerioa	60 produktu kategorია: papera, tonerrak, arropak...
China Environmental Labelling		SEPA	50 produktu kategorია: energia aurrezten duten produktuak, altzariak, aerosolak...
Thai Green Label		Thailandiako Ingurumen Institutua	40 produktu kategorია: garbigarriak, ordenagailuak...
Green Seal		Green Seal erakundea	30 produktu kategorია: margoak, aire girotuko sistemak...

Iturria: Egileak moldatuta, *Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua* (IHOBE, 2010) eta *Buying for a Better World* (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011) txostenetan oinarriturik.

ISO 14020: Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak arauak, I. motako etiketaz gain, II. eta III. motakoak ere sailkatzen ditu. i) II. motako etiketak (ingurumen-autoadierazpenak): ISO 14021 arauak erregulatzen ditu, eta erakunde pribatu nazional eta nazioartekoek diseinatzen dituzte, euskarri moduan ingurumenari buruzko arautegia erabiliz; ii) III. motako etiketak (produktuaren ingurumen-adierazpenak): ISO 14025 arauak erregulatzen ditu, eta, ISO 14020 arau multzoak arautzen dituen beste bi etiketa motetan ez bezala, III. motako etiketen kasuan, ez dira definitzen bete beharreko gutxieneko ingurumen-eskakizunak edo -balioak. Ingurumen-alderdi batzuk identifikatzen dira, horiei buruzko informazioa emateko eta, era horretan, ingurumen-portaerari buruzko irudi bat eskaini ahal izateko. Era guztietako ikurrak sartzen dira hemen, hala nola "paper ekologikoa", "klororik gabea", "ez du ozonoko geruzan eraginik", "ingurumenaren laguna".

Modu berean, etiketa sozialek gai sozioekonomiko desberdinak kontuan har ditzakete: giza eskubideak, langileen eskubideak, umeen lanaren erabileraren debekua, garapen bidean dauden herrialdeko ekoizleei egindako bidezko ordainketa, etab. Etiketa batzuek gai sozialak eta ingurumenekoak ere kontuan izaten dituzte. Etiketa ekologikoen kasuan bezala, etiketa sozial batzuk gai konkretu bakarreen zentratzen dira, eta beste batzuek ikuspegi zabalagoa dute. Baina, etiketa sozialak ez dira ingurumen-etiketak bezainbeste ugarritu. Hala ere, azken urte hauetan, zenbait hasi dira agertzen. 6. taulan adibide batzuk jaso dira.

6. taula: Mundu mailan ezagunenak diren etiketa sozialak

Izena	Ikurra	Deskribapen laburra
Fairtrade Labelling Organizations		Produktuak Nazioarteko Bidezko Merkataritzaren Erakundeak definitutako bidezko merkataritzako nazioarteko irizpideak betetzen dituenaren ziurtagiria
Rugmark		Alfonbren ekoizpenean, umeen eskulan ilegala ez dela erabiltzen ikuskatu eta ziurtatzen du
Le Label Social Belge		Produktuak LANEren oinarritzko hitzarmenak betetzen dituzten enpresek manipulatu dituztenaren ziurtagiria
Rainforest Alliance		Faktore ekologiko, ekonomiko eta sozialak kontuan hartzen dituen kontserbazio-tresna bat da

Iturria: Egileak moldatuta, *Buying for a Better World* (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011) txostenean oinarriturik.

Aipatu diren etiketez gain, zehaztaperen teknikoak estandar teknikoari, ekoizpen-metodoari, prestazio- edo funtzionaltasun-eskakizunari edota aldagaien erabilerari buruzko informazioan oinarritu daitezke.

Azpimarratu behar da, eskakizun sozioekonomikoak barneratu nahi direnean, prozesuaren arduradunen erronkarik handienetako bat dela horiek ondo justifikatzea. Esate baterako, EKP bidez administrazio batek kafea erosterakoan "bidezko" modu batean ekoiztutakoa nahi badu, asmo hori kontratuaren tituluan jaso beharko du. Adibidez, "bidezko merkataritzako kafearen erosketa" titulua baliatu dezake.

Hurrengo urratsean, hornitzaileak aukeratu behar dira. Hautaketa-irizpideen bidez erabakiko da erosketa eta kontratu publikoan parte hartu nahi duten hornitzaileek kontratua gauzatzeko kaudimen tekniko edo profesionala duten. Kaudimen-irizpideak ezinbesteko baldintzak dira, hau da, kaudimen-eskakizunak betetzen ez dituzten hornitzaileak EKP prozesutik baztertu egiten dira. Beraz, lizitazioetan, kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko lizitatzailerik ingurumen-kudeaketako sistema (IKS) bat eskatzen badute, EKP prozesuan parte hartu nahi duen hornitzaileak ziurtatu behar du IKS bat inplementatua duela. Horretarako, erakunde independente batek emandako ziurtagiria aurkeztu dezake (ikusi 2. irudia).

2. irudia: IKS ziurtaperen-eskema nagusiak



Iturria: IHOBE (2020).

Beheko taulan (7. taula), zehaztaperen teknikoaren urratsean iraunkortasun-eskakizunak nola erabili daitezkeen argitzeko adibideak jaso dira.

7. taula: Ekoetiketa edo IKS eskakizunen eskaria zehaztaperen teknikoetan. Adibideak

Kontratu publikoa: inprimatzeko papera Eskakizuna	Kontratu publikoa: kirol-ekipamenduen kudeaketa. Eskakizuna
Inprimatzeko paperak baso-ustiategi iraunkorretatik datozen eta/edo birziklatutako zuntzekin ekoiztuta egon beharko du % 70eko proportzioan, FSC, PEFC edo horien baliokide estandarren arabera	Lizitatuzaileak frogatu dezala baduela gaitasuna ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak aplikatzeko kontratua egikaritzean, EMAS Araudiaren edo arau baliokidean ezarritako parametroen arabera
<p>Frogabidea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskaintako paperaren fabrikatzailearen zaintza-katearen ziurtagiriak –FSC, PEFC edo baliokidea– 2. Paperaren dokumentazio grafikoa, ekoetiketaren irudiarekin –FSC, PEFC edo baliokidea– edo Baliokidetasuna frogatzen duen bestelako dokumentazio alternatiboa 	<p>Frogabidea:</p> <p>EMAS araudiaren edo arau baliokidearen arabera IKS ziurtagiria edo araudi edo arau horren baliokidea den egiaztapen-dokumentazioa</p>

Iturria: IHOBE (2020)tik moldatua.

Erosketa eta kontratazioaren hurrengo fasea kontratuaren esleipen-fasea da. Hautaketa-irizpideak eta derrigorrezko baldintzak –zehaztaperen teknikoak– betetzen ez dituzten lizitatuzaileen proposamenak baztertu ondoren, gainontzeko eskaintzak irizpide objektiboan arabera alderatuko dira, eta horien artean egokiena aukeratu da. Eskaintzak alderatzeko bi irizpide har daitezke oinarritzat: preziorik baxuena edo ekonomikoki onuragarriena den eskaintza. Lehenengo irizpidea erabiltzen bada, erabakia eskaintako prezioaren arabera hartuko da.

Baina, sarritan, irizpide sozial edo ekologikoak sartu edo ez sartu, kontratua hainbat irizpideren arabera esleitzen da, eta ez eroste prezioaren arabera bakarrik. Kontuan hartzen diren beste elementuak dira: kalitate-irizpideak, entrega-epeak, hobekuntza teknikoak, ingurumen-hobekuntzak, etab. Kasu horretan, ekonomikoki onuragarriena den kontratuari egokitzen zaio esleipena, hau da, administrazioarentzat ekonomikoki errentagarriena den eskaintzari. Aukera hori erabiltzean, prozesuaren gardentasuna bermatzeko, eskaintzak ebaluatzeko eta kontratua esleitzeko kontuan izango diren irizpideak zehaztu behar dira kontratuaren baldintza-orrietan. Gainera, irizpide horien haztapena adierazi, eta handienetik txikienera zerrendatzea derrigorrezkoa da, eta iraunkortasuna aintzat hartzen duten esleipen-irizpideek kontratuaren xedearekin loturik egon behar dute eta neurgarriak izan behar dute, alegia, ezin dira subjektiboak izan (ikus adibidea).


8. taula: Iraunkortasuna barneratuz ekonomikoki onuragarria den eskaintza-irizpidea. Adibide bat

Kontratu publikoa: Ordenagailuak alokatzeko zerbitzua	
Esleipen-irizpideak:	
Eskaintza ekonomikoa	70 puntu arte
Ekipoen eraginkortasun energetikoa	30 puntu arte

Iturria: Egileak egina.

Azkenik, administrazioak kontratua gauzatzeko klausula bereziak ezar ditzake, hau da, kontratua gauzatzeko moduari buruzko irizpideak. Baldintza horiek ez dute inongo eraginik esleipen-fasean; beraz, ez da inongo egiaztagiririk eskatuko. Hala ere, prozesuaren hasieratik eman behar dira ezagutzera, nahiz eta kontratua gauzatzekoan garatuko diren. Adibidez, hurrengo klausula bereziak zehaztu daitezke: i) hornitzaileak ontzi berrerabilgarrikerabili beharko ditu produktuak hornitzean, edo ii) lorezaintzako zerbitzua kontratatzerakoan, klausula berezi moduan, parkeren batean hondakinak gaika biltzeko ontziak egonez gero, kontratistak hondakinak gaika biltzeko obligazioa izango du, eta bakoitza dagokion udal-erakundearen edukiontzietan uzteko klausula zehaztu daiteke.

Laburbilduz, iraunkortasun-eskakizunak EKP prozesuak dituen urrats ezberdinetan barneratu daitezke. Kontratua diseinatzen duenaren ardura izango da erabakitzea zein urratsetan barneratu eskakizunak. Beheko irudian, EKP fase bakoitzean zein irizpide barneratu daitezkeen jasotzen da, modu eskematikoan.



Iturria: Egileak egina.

4. Erosketa Publikoaren araudi eta erakunde-esparruaren egokitzapena Europar Batasunean

4.1. EBn EKPBa sustatzeko arau-esparrua

Ingurumen-eragin negatibo murriztuko produktuak eta zerbitzuak erosteko neurriak hartzeko aukera jasotzen dute hainbat esparrutako araudiek.

Nazioarte mailan, nabarmentzekoa da Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa (KPA), 1994. urtean sinatua eta 2014. urtean berrikusia. Hitzarmen horren helburua da, batetik, kontratazio publikoarekin zerikusia duten lege, erregelamendu, prozedura eta jardunbideen gardentasuna areagotzea, eta, bestetik, berrmatzea gobernuak ez dituztela babesten produktu edo hornitzaile nazionalak eta ez dituztela diskriminatzen atzerriko produktu edo hornitzaileak. Hala ere, Larrazabalek dioenez (2014), KPAk oraindik ez du esplizituki jasotzen kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzeko aukera.

EBren esparruan, kontratazio-agirietan ingurumen-irizpideak sartzeko aukerari eta egokitasunari buruzko ziurgabetasuna eta baldintza horiek agirietako ataletan sartzeko modu egokia zirela eta, Batzordearen Interpretazio-komunikazioa argitaratu zen 2001. urtean, kontratu publikoei buruzko Erkidegoko legeriari buruzkoa eta kontratazio publikoan ingurumen-alderdiak integratzeko aukerei buruzkoa (COM (2001) 274 azkena), non luze eta zabal jasotzen baitira ingurumen-alderdi horiek.

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA), "Helsinki Bus Case" kasuari buruzko epaia ematean, ingurumeneko alderdiak txertatzeko prozedura juridiko zuzena definitu zuen. Ondoren, eta dagoen legezko hutsunea betetzeko, kontratazio publikoari buruzko Europako zenbait zuzentarau garatu eta onartu ziren. 2004/18/EE Zuzentarauak, aurrekoak ez bezala, berariaz onartu zuen kontratazio publikoaren bidez ingurumenari buruzko alderdiak kontuan hartzeko aukera, eta, horri esker, kontratazioaren faseetan ingurumen-irizpideak sartzeko aukera aurrerapauso kualitatiboa izan zen erosketa publikoari buruzko Europako araudian.

Gaur egun, Europar Batasuneko erosketa publikoetarako lege-oinarria honako zuzentarau hauen bidez eskaintzen da: 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuen esleipenari buruzkoa; 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; eta 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa. Europako azken zuzentarau horietan oinarrituta, espero liteke kontratazio publikoa helburu publikoen zerbitzurako tresna izatea (Retolaza et al., 2015).

Europar Batasunak ahalegin handia egin du azken urteotan EKPBaren prozesuan ingurumen-irizpideak txertatzea bermatuko duen esparru politiko eta juridikoa garatzeko. Hori dela eta, EBk EKPBari dagokion araudi-esparru garatuenetako bat du, eta horrek garrantzi berezia du EBko ingurumen- eta energia-politiketarako. 9. taulan, EKPlaren erabilera sustatzen duten zenbait lege-tresna jaso dira.

9. taula: EKPBarekin lotutako lege-tresna nagusiak	
Lege-tresna	Deskribapen laburra
2012/27/EB Zuzentaraua, energia-eraginkortasunari buruzkoa	Energia-eraginkortasuna sustatzeko neurriak ezartzen ditu. Gobernu zentralen eraikinen % 3 berritzeko eskatu dute, kontratu publikoetan energia-eraginkortasuneko irizpideak sartuz.
2011/65/EB Zuzentaraua	Ekipo elektriko eta elektronikoen fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzaileentzako baldintzak ezartzen ditu, Zuzentaruaren identifikatutako substantzia arriskutsuei dagokienez, baita CE etiketari buruzko arauak ere.

Lege-tresna	Deskribapen laburra
N66/2010 (EE) Erregelamendua, EBko etiketa ekologikoari buruzkoa	EBko etiketa ekologikoaren sistema Europako Erkidegoko ekoizpen eta kontsumo iraunkorreko politikaren parte da, eta haren helburua da ekoizpenak eta kontsumoak ingurumenean, osasunean, kliman eta baliabide naturaletan duten eragin negatiboa murriztea.
2010/30/EB Zuzentaraua, energiarekin lotutako produktuek kontsumitzen duten energia eta beste baliabide batzuk etiketatzearen eta informazio normalizatuaren bidez adierazteari buruzkoa	Azken erabiltzailearentzako informazioari buruzko neurri nazionalak bateratzeko esparrua ezartzen du, batez ere energia-kontsumoari buruzko etiketatzearen eta informazio normalizatuaren bidez. Halaber, EBko estatuak agintari kontratatzaileei eskatu ahal izango diete gehieneko errendimendu-mailak lortzeko eta energia-eraginkortasun handiena duen klasekoa izateko irizpideak betetzen dituzten produktuak soilik erosteko.
2010/31/EB Zuzentaraua, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa	Eraikin berrien eta daudenen eraginkortasun energetikoa sustatzeko neurriak sartzten ditu. Zehazki, 2020aren amaierarako, eraikin berri guztiak energia-kontsumo ia nulukoak izango direla ziurtatzeko eskatzen zaie estatu kideei.
995/2010 Erregulazioa	Zuraren erregulazioak EBko merkatuan eskuragarri dagoen zuraren legezketasuna bermatzeko esparrua ematen du.
2009/33/EE Zuzentaraua	Ibilgailuei buruzko zuzentarauak EKPBaren nahitaezko baldintzak ezartzen ditu errepideko eta garraioko ibilgailuetarako, emisioei eta energia-kontsumoari dagokienez.
2009/125/EE Zuzentaraua	Diseinu ekologikoari buruzko zuzentaraua EBren esparru nagusia da energiarekin lotutako produktuetarako ingurumen-irizpideak garatzeko.
2012/19/EB Zuzentaraua	Zuzentarauak ekipo elektriko eta elektronikoak gaika bildu, tratatu eta berreskuratzea aurreikusten du, bai eta diseinu garrantzitsuko baldintzak ezartzea ere.
2009/28/EE Zuzentaraua	Iturri berriztagarrietatik abiatutako elektrizitatearen zatiarentzat nahitaezko helburu nazionalak, jatorri-bermeei buruzko arauak eta bioerregaien eta biolikidoen iraunkortasun-irizpideak ezartzen ditu.
1221/2009 Erregulazioa	EMAS araudiaren bidez, kontratazio publikoan kontuan har daiteke EMASen forma.
2008/98/EE Zuzentaraua	Hondakinen kudeaketarekin lotutako oinarritzko kontzeptuak eta definizioak definitzen ditu, eta hondakinak kudeatzeko printzipioak ezartzen ditu, hala nola "kutsatzen duenak ordaindu behar duenaren printzipioa" eta "hondakinen hierarkia".
106/2008 Erregulazioa	Administrazio publiko zentralak behartzen ditu Energy Star programaren zehaztapen komunen antzeko eraginkortasun teknikoa duten produktuak erostera.
1907/2006 Erregulazioa	Fabrikatzaileak behartuta daude beren substantzia kimikoen propietateen xehetasunak eta segurtasun-informazioa datu-base zentral batean erregistratzera.

Iturria: Egileak egina.

4.2. EKPBa sustatu duten Europar Batasuneko erakundeen esparrua eta ekimenak

Europako Batzordeak, Produktu Politika Integratuari buruzko Komunikazioan (European Commission COM (2003) 302 final, 2003), erosketara publiko berdearen garrantzia azpimarratzen du. EKPBa sustatzeko proposatzen diren ekintza-neurrien artean dago estatu kideei zuzendutako proposamena, kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzeko Ekintza Plan Nazionala (EPN) garatzeko. EPNeK abiapuntuko egoeraren ebaluazioa eta hurrengo hiru urteetarako espero diren helburuen aurreikuspena jaso behar dituzte, eta proposatutako helburuak lortzeko proposatutako neurriak zehaztu. Nahiz eta EPNeK juridikoki lotesleak ez izan, bultzada handia ematen diote Erosketa Publiko Berdearen ezarpen- eta sentsibilizazio-prozesuari, EPNeK aukera ematen baitiete estatu kideei beren esparru politikora ondoen egokitzen diren aukerak hautatzeko eta oinarritzko ezarpena egokitzeke.

Kontsumo eta Ekoizpen Iraunkorrerako eta Industria Politika Iraunkorrerako Ekintza Plana (Commission of the European Communities, 2008b) argitaratzean, Europako Batzordeak Erosketa Publiko Berdea indartzeko konpromisoa hartu du, eta Kontratazio Publikoari buruzko Komunikazioa argitaratu du, ingurumen hobea lortzeko. Komunikazio horrek orientazioa ematen du sektore publikoaren kontsumoak ingurumenean duen eragina murrizteko eta erosketara publikoaren prozesua ingurumen-teknologia, -produktu eta -zerbitzuetan berrikuntza sustatzeko erabiltzeko. Gainera, EBri dagokionez, Europako Batzordeak helburu adierazgarri bat ezarri du: eskaintza publikoen % 50 "berdeak" izatea 2010. urterako; izan ere, "berdea" da EBko EPBaren oinarritzko irizpideak betetzea. Hau da, merkatu bakarraren distortsioa saihesteko eta CPV ezartzeko ardura duten agenteen karga administratiboa murrizteko, Europako Batzordeak bi irizpide komun garatu ditu: oinarritzko irizpideak, ingurumen-eragin giltzarriei heltzen dietenak eta gutxieneko egiaztatze-ahaleginarekin edo kostu txikiekin erabiltzeko diseinatuta daudenak, eta irizpide integralak, helburua merkatuan dauden ingurumen-produktu onenak erostea bada.

Ekoberrikuntzako Ekintza Planaren (EcoAP) helburua da ekoberrikuntza merkatura azkarrago sartzeko eta ingurumen-teknologiaren elementu bultzatzaileei eta oztopoei aurre egitea. EcoAPak adierazten du ekoberrikuntzarako eskaera indartsuagoa eta egonkorragoa sortzen lagun dezakeen neurri gisa CPV hartzea.

Epe jakin batean lortu beharreko lehentasunezko helburuak definitzen dituzten ekintza-programen inguruan antolatu da EBko ingurumen-politika. Gaur egungo programak, Ingurumen Arloko VII. Programak (1386/2013/EB Erabakia), EBkoa karbono gutxiko ekonomia bihurtzeko lehentasunezko helburuari dagokionez, alegia, baliabideen erabilera eraginkorra, ekologikoa eta lehiakorra izateko, estatu kideei proposatzen die neurriak hartzen segitzeko, gutxienez lizitazioen % 50etan CPV irizpideak aplikatuko direla bermatzeko.

Europa 2020 Estrategiaren bidez (European Commission, 2010), EBk hiru lehentasun proposatu ditu, elkar indartzeko; hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea sustatzea. EBn nahiz EBko kide diren estatuetan baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko dituen ekonomia sustatzeko, EPBaren erabilera indartu eta kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkoragoetarantz aurrera egin nahi da.

5. EBko herrialdeen arteko desberdintasunak, Erosketa Berdearen aplikazioari dagokionez

EKPBAk EBn duen ezarpenari buruzko lehen azterlanetako bat da *Green Public Procurement in Europe* izenburua duen Bouwerrek eta beste batzuek (2006) eginikoa. 2006. urtean egindako lan honek Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren online bertsioan argitaratutako 1.099 erosketa- eta kontratazio-deialdi ezberdinei zegozkien agiriak aztertu zituen, eta EBko zazpi herrialde nabarmendu zituen: Alemania, Austria, Danimarka, Finlandia, Herbehereak, Erresuma Batua eta Suedia –zazpi berdeak deiturikoak–, bai erosketa eta kontratazio publikoko prozesuetan ingurumen-eskakizun gehiago barneratu izanagatik, bai ingurumen-eskakizunak neurri handiago batean baloratu izanagatik.

Urtebete geroago egindako *The uptake of green public procurement in the EU27* (Renda et al., 2012) azterlanak azpimarratu zuenez, europar administrazio publikoek kontratu publikoetan ingurumen-irizpideen ezartzeari buruzko inkesta egin ondoren, EBko 27 herrialdeetatik lau herrialde nabarmendu ziren (Danimarka, Suedia, Belgika eta Herbehereak) gutxienez erosketa publikoen % 40an irizpide berdeak barneratu izanagatik. Hala ere, azterlan berak nabarmendu zuen EBko hamabi herrialdeetako EKPBaren ezartze-mailak ez zuela erosketa publikoen % 20a gainditu.


Bai Bouwer eta besteren (2006) ikerketa lanak zein Renda et al.-en (2012) azterlanak nabarmendu zuten, erosketa publikoetan irizpide berdeak sartzekoan, herrialde aktiboek ezaugarri komunak partekatzen zituzten: politika edota tresna ez-juridiko sendoak zituzten, hala nola EPBrako Ekintza Plan Nazionalak (EPN), EKPBako gidak garatuak zituzten, eta tresna berritzaileak (bizi-zikloaren ikuspegia, adibidez) eta abar erabiltzen zituzten. Gainera, *The uptake of green public procurement in the EU27* lanak zuzeneko korrelazioa identifikatzen du EKPBako EPNa eta EKPBa gauzatzearen artean.

2005. urteaz geroztik, EEKko (Europako Esparru Ekonomikoa) herrialde gehienek Erosketa Publiko Berdearen edo Iraunkorraren Ekintza Plan Nazionala (EPN) onartu dute, eta EB28ko kide diren bost estatuk (Estonia, Grezia, Hungaria, Luxenburgoko eta Errumania) 2020ko martxoan oraindik zehaztu gabe zuten Erosketa Publiko Berdearen edo Iraunkorraren EPNa, arrazoi desberdinengatik.

EPNek egungo egoeraren ebaluazioa eta hurrengo hiru urteetarako helburuak finkatu behar dituzte, horiek lortzeko zein neurri hartuko diren zehaztuz. EPNak ez dira juridikoki lotesleak, baina bultzada politikoa ematen diote kontratazio publiko berdearen ezarpen- eta sentsibilizazio-prozesuari. Horrenbestez, EPBari dagokionez lehentasunezko sektore² gisa definitu diren i) eraikinen, ii) elikadura- eta catering-zerbitzuaren, iii) ibilgailuen eta iv) energia erabiltzen duten produktuaren sektoreetan, Europako herrialdeek azken urte hauetan egin duten aurrerapena jaso nahi izan da 4. irudian. Bertan ikus daitekeenez, EBko estatu kideen artean, EPBaren irizpideen garapen-maila ez da berdina lehentasunezko lau sektoreei dagokienez. Austria, Zipre, Herbehereak, Italia, Lituania, Malta eta Erresuma Batua nabarmentzen dira; izan ere, EBk definitutako oinarritzko irizpideak garatu eta beren errealitate nazionalera egokitu dituzte. Jarraian, iparraldeko herrialdeak daude, Finlandia eta Suedia; lehentasunezko lau sektoreetatik hirutan EPBaren irizpide nazionalak definitu dituzte.

2 EBk aipatutako lau sektoreak lehenetsi ditu, hainbat arrazoiengatik: (a) ingurumenean duten eraginagatik, beren bizi-zikloan ingurumenean eragin handia duten produktuak (adibidez, flotako ibilgailuak) edo zerbitzuak (adibidez, garbiketa-zerbitzuak) direlako; (b) aurrekontuan duten garrantziagatik, gastu publikoko aurrekontuaren barruan gastu handiko arloak direlako; eta (c) merkatuan eragiteko duten ahalmenagatik, kontratuaren tamaina edo ikusgarritasuna dela-eta, hornitzaileek egitateari ematen dioten garrantzia dela-eta.

4. irudia: EPBaren garapena lehentasunezko sektoreetan EBko kide diren estatuetan. 2016.



Iturria: Egileak egina.

6. Ondorioak

Azken urteotan, ingurumenaren egoeraren kezka areagotzearen ondorioz, erakunde publikoen jarrera aldatu egin da, eta horrek EKPIaren aldeko ekimenak gehitzea ekarri du. Europar Batasunean egindako arau-bilakaerak hori islatzen du; 1990eko hamarkadaren hasieran egin ziren lehen urratsak.

Kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorrago baterantz aurrera egiteko, agintari publikoek duten tresna bat da EKPIa; izan ere, prozesu horren bidez, agintari publikoek oinarritzko erabilera bera duten produktuak eta zerbitzuak erostea erabakitzen dute, baina bizi-zikloan ingurumen-eragin txikiagoa dutenak edota inpaktu sozialak murriztuko dituztenak, beste modu batera erosten diren produktu eta zerbitzuekin alderatuz.

Europa mailan EKPBari buruzko legeria nahiko garatuta dagoen arren, alde nabarmenak daude Europako herrialdeen artean erosketak publikoetan ingurumen-alderdiak integratzeari dagokionez. EKPBaren garapen-mailak EBko estatu kideetan ibilbide berdina izan ez izanaren arrazoi nagusietako bat EKPBaren borondatezko izaera da, hau da, ingurumen-irizpideak sartzea lege-eskakizunetatik haratago doa. *The uptake of green public procurement in the EU27* azterlanaren arabera, zuzeneko harreman positiboa dago EKPBko EPN bat egotearen eta ingurumen-helburuak dituzten erosketak publikoak ezartzearen artean. Egungo egoeraren ebaluazioa dute abiapuntu EPNek, eta hurrengo hiru urteetarako helburuak eta horiek lortzeko hartuko diren neurriak biltzen dituzte.

EBko kide diren estatuek lehentasunezko lau sektore espezifikoetarako dagokienez (eraikinak, elikadura-eta catering-zerbitzuak, energia erabiltzen duten ibilgailuak eta produktuak) gaur egun arte egindako ahaleginaren arabera, bi talde nagusi bereizi dira: i) EBko irizpide komunak estatuko errealitatera egokitzeko borondate argia aurkeztu duten herrialdeez osaturiko taldea, eta ii) EBko irizpide komunak aplikatzea erabaki duten herrialdeek osatzen duten taldea.

7. Bibliografia

- BOUWER, M., et al. (2006): *Green public procurement in Europe 2006–Conclusions and recommendations*, Haarlem: Virage Milieu & Management. Eskuragarri:
http://Ec.Europa.Eu/Environment/Gpp/Pdf/Take_5.Pdf [Kontsulta-eguna: 2008/12/10]
- BRAMMER, S., & WALKER, H. (2011): "Sustainable procurement in the public sector: An international comparative study", *International Journal of Operations & Production Management*, 31(4), 452-476. or.
- COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES (2008a): *Public procurement for a better environment*, Brusela: Belgika.
- COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES (2008b): *Sustainable consumption and production and sustainable industrial policy action plan*, Brusela: Belgika.
- DEFRA (2006): *Procuring the Future– The sustainable procurement task force national action plan*, Londres: Erresuma Batua.
- ERAUSKIN-TOLOSA, A., ZURBANO-IRIZAR, M., & MARTÍNEZ-TOLA, E. (2017): "Contrataciones públicas en economía social: Un estudio del caso de la Universidad del País Vasco", *CIRIEC-España, Revista De Economía Pública, Social Y Cooperativa*, (89), 55-79. or.
- ERRIDGE, A., & HENNIGAN, S. (2006): "Public procurement and social policy in Northern Ireland: The unemployment pilot project" in G. Piga, G. eta KV Thai (Ed.): *Advancing Public Procurement: Practices, Innovation and Knowledge-Sharing*, 280-303. or.
- EUROPEAN COMMISSION (2003): *Communication on integrated product policy. building on environmental life-cycle thinking*, Brusela: Belgika. Eskuragarri:
<https://ec.europa.eu/transparency/regdoc/rep/1/2003/EN/1-2003-302-EN-F1-1.Pdf>
- EUROPEAN COMMISSION (2010): *Europe 2020 A strategy for smart, sustainable and inclusive growth*, Brusela: Belgika.
- EUROPEAN COMMISSION (2016). *Public procurement indicators 2014. DG GROW G4 - Innovative and E-Procurement*, Eskuragarri:
http://ec.europa.eu/growth/single-market/public-procurement/studies-networks/index_en.htm
- EUROPEAN COMMISSION (2020): *Buying for social impact good practice from around the EU*, Luxenburgoko Luxenburgoko. Publication Office of European Union. doi:10.2826/8319 Eskuragarri:
<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/3498035f-5137-11ea-aece-01aa75ed71a1>
- ICLEI (2007): *The Procura+ manual. A guide to cost-effective sustainable public procurement, 2nd edition*. Friburgo: Alemania.
- IHOBE (2010): *Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua*, Bilbo (Bizkaia). Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/contratacion_publica_verde/eu_doc/adjuntos/2010.pdf
- IHOBE (2020): *Ingurumen-ziurtapenak erosketa eta kontratazio publikoan erabiltzeko gida praktikoa*, Bilbo (Bizkaia).
- LARRAZABAL, E. (2014): "Las cláusulas sociales en la contratación pública y la posibilidad de establecer un

- salario mínimo en la ejecución de los contratos”, *Lan Harremanak: Revista De Relaciones Laborales*, 31, 135-156. or. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5211070>.
- OECD (2015): “Size of public procurement” in OECD (Ed.): *Government at a glance, chapter 9, public procurement*. Paris: Frantzia.
- PERERA, M. P. A., & ABEYSEKARA, B. (2016): “Defining KPIs to measure eco-sustainable performance at container terminals in Sri Lanka”. 2nd International Moratuwa Engineering Research Conference, MERCon 2016, biltzarrean aurkeztutako lana, 315-320. or. doi:10.1109/MERCon.2016.7480160 Eskuragarri: <https://www.scopus.com/inward/record.uri?eid=2-s2.0-84978052619&doi=10.1109%2fMERCon.2016.7480160&partnerID=40&md5=48f2985b5d672b2f1bbb75654a223f46>
- PREUSS, L. (2007): “Buying into our future: Sustainability initiatives in local government procurement”, *Business Strategy and the Environment*, 16(5), 354-365. or.
- PRICEWATERHOUSECOOPERS, P. (2009). *Collection of statistical information on green public procurement in the EU. Report on data collection results*.
- RENDA, A., et al. (2012): *The uptake of green public procurement in the EU27*. Brusela: Centre for European Studies (CES), College of Europe, vol.51.
- RETOLAZA, J. L., et al. (2015): “Incorporando el valor social en las licitaciones públicas: Un modelo integral”, *CIRIEC-España, Revista De Economía Pública, Social Y Cooperativa*, (85), 55-82. or.
- RIETBERGEN, M. G., & BLOK, K. (2013): “Assessing the potential impact of the CO² performance ladder on the reduction of carbon dioxide emissions in the Netherlands”, *Journal of Cleaner Production*, 52, 33-45. or.
- UNEP, UNOPS, ILO, & ITC ILO (2011): *Buying for a better world. A guide on sustainable procurement for the UN system*. Paris, Frantzia. Eskuragarri: https://www.ungm.org/Areas/Public/Downloads/BFABW_Final_web.pdf
- WALKER, H., & BRAMMER, S. (2009): “Sustainable procurement in the United Kingdom public sector”, *Supply Chain Management*, 14(2), 128-137. or.

8. Glosarioa

Laburdura	Terminoak
BPG	Barne Produktu Gordina
EB	Europar Batasuna
EcoAP	Ekoberrikuntzako Ekintza Plana
EE	Europako Erkidegoa
EEJA	Europako Erkidegoko Justizia Auzitegia
EKP	Erosketa eta Kontratazio Publikoa
EKPA	Erosketa eta Kontratazio Publiko Arduratsua
EKPB	Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea
ELGE	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
EPN	Ekintza Plan Nazionala
ISO	International Standards Organisation
KPA	Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa
PP	Public Procurement (Erosketa eta Kontratazio Publikoa)
SPKL	Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea
SPP	Sustainable Public Procurement (Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra)

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegariari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

- 17.** Txina: Garapen eredua birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

